

Marmari

24. zenbakia / 2012ko abendua


Leizakoa
aldizkaria

- Manuel Lasarte
- Euskararen inguruko gogoeta
- Berdintasun zerbitzua
- eta gehiago...



Izenak, izanak,
esanak eta eginak

zenbaki honetan:



16-19. or. Euskararen inguruko gogoeta Leitzan

20-21. or. Bai euskarari ziurtagiria

22-24. or. Berdintasun zerbitzua

25. or. Trinkotzaindia

26-27. or. Ipuina

28. or. Eta zuk zer diozu?

3. or. Aurkezpena


4. or. XXI. mendeko izenak Leitzan

6-8. or. Manuel Lasarte hitzaren errementaria

9. or. Hitzokei IV

10-11. or. Ba al zenekien...?

12-15. or. XX. mendeko Leitzako zenbait jakingarri



m ARMARI aldizkariaren 24. zenbakia da eskutan duzuna. Urtean bi zenbaki argitaratu ditugu aldizkaria sortu zenetik, baina aurtengoan bakarra izan da. Eta ziur gaude berehala asmatu izan duzula bakarra argitaratzeko arrazoia zein izan den. Bai, halaxe da, zorioneko krisia. Hori ere gurera iritsi da, eta zailtasun ekonomikoek Euskara Mankomunitatea ere astindu dutenez, bi izan beharrean aurten MARMARI aldizkari bakarra izan dugu.

Zenbaki honetan, ohikoa den moduan, euskararekin eta Leitzarekin lotuta dau-den kontuak aurkituko dituzu. Atal batzuetan atzera begira jarri gara, eta, konparaziora, XX. mendeko Leitzako

kontu batzuk ekarri ditugu, hemen gertatuak. Manuel Lasarte ere gogoan izan dugu zenbaki honetan, aurten hila baina XX. mendean bertsogintzan protagonista izandakoa. Kanpoan urte asko iragotakoa baina hemen jaioa eta umetan hemen hazia. Eta horiekin batera, ipuin zahar bat ere ekarri dugu, irakurle baten kolaborazio gisa. Orduko etxetan nolatsuko ipuinak kontatzen ziren ikusten lagunduko digu horrek, eta zenbait gauza nola aldatu diren erakutsiko digu bidenabar.

Dena ez da, noski, aspaldiko gauzak ekartzea, eta gaur-gaurkoak ere baditugu. Pertsona izenen inguruko lantxo bat prestatu dugu, eta horrek bete-betean

jarri gaitu XXI. mendean. Izan ere, azkeneko 12 urteotan Leitzan umeei jarri zaizkien izenak aztertu ditugu, baita estatistikaren bat egin ere. Gaur-gaurkoak dira, bestalde, euskararen inguruan Leitzan aurten egin dugun gogoeta estrategikoa, oraintxe bertan osatzen ari den berdintasun-plana, eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren ebaluazioa. Eta horiei buruz ere zer edo zer idatzi dugu.

Eta horiez gain, bestelako atal batzuk, euskara eta hizkuntzak ardatz hartuta, umore puntu batekin, zuen interesekoak izanen direlakoan. Guztiak ere, beti bezalaxe, zuen eskura aldizkari atsegin eta interesgarri bat uzteko asmoz eginak.

XXI. MENDEKO IZENAK Leitzan

Haurrak jaiotzen diren garaian gurasoek buruhauste dezente izaten dute, eta horietako bat umeari jarri beharreko izena izaten da. Izan ere, bizitza osorako izaten da normalean, eta ongi asmatu nahi izaten dute, gustuko bat aukeratzuz. Askok aldatu da izenen kontu hori gurean, eta ia-ia desagertu dira garai bateko Jose Antonio, Maria Dolores, Asuncion, Gabriel eta gisakoak.

Gaur egun euskal izendegitik ateratakoak aukeratzen dira gehienbat, euskal izenak alegia, eta esan beharra dago gurasoek askotan izen original samarra aurkitu dutela beren umeentzat. Bestela, nekez uler daiteke azkeneko 12 urteotan Leitzan inskribatutako 356 haurrei jarritako 191 izenen artean 126 izatea, hain xuxen, epe horretan inoiz errepikatu ez direnak. Alegia, 2000. eta 2012. urte bitartean Leitzan *Inhar* bakarra jaio da, edota *Amalur*, *Aloña*, *Iruna*, *Adei*... bakarra. 126ko zerrenda osatu arte. Gogoan

izan XXI. mendekoez ari garela, baliteke -eta izen horietakoren bat XX. mendean Leitzan jaiotako norbaitena ere izatea.

Gainerakoek, 230 haurrek alegia, mende honetan jaiotako beste norbaitekin izena partekatzen dute. Izan errepikatuen artean sailkapen bat eginez gero, zerrendaren buruan *Leire* eta *Aitor* agertzen zaizkigu. *Leire* izena 9 aldiz errepikatzen da, eta *Aitor* 8 aldiz. Beheraxeago duzue 10 errepikatueneen zerrenda.

Jarraian, Leitzako Udaleko jaiotza-erregistrotik ateratako estatistika bat ikusiko duzue. 2000. urtean hasi eta 2012ko abuztua bitarteko erregistroan oinarritu gara, eta hortik atera ditugu kontu guztiak. Hauexek dira datuak:

INSKRIBATUTAKO HAUR KOPURUA:

Azkeneko 12 urte eta erdiko epean 356 haur inskribatu dira Leitzan. Horietako 174 neskak dira (% 48,9) eta 182 mutilak (% 51,1).



IZEN KOPURUA:

Guztira 191 izen ezberdin hautatu dituzte gurasoek beren umeentzat: 86 neska-izen eta 105 mutil-izen. 191 izen horietatik 65 behin baino gehiagotan agertu dira (2 aldiz gutxienez, eta 9 aldiz gehienez). Behin bakarrik jarritako izenak 126 dira, izen guztien % 65,9.

Jarraian, bi taulatan bilduta, 2000-2012 urteen artean Leitzan inskribatutako ume guztiei jarritako izenen zerrenda duzue. Izenarekin batera, izen hori zenbat umeri jarri zaion jaso dugu. Eta taularen ondoren, gehien errepikatu diren 10 izenen zerrenda duzue.

NESKAK

* Izenaren ondoren kopururik agertzen ez bada, behin bakarrik agertu dela esan nahi du.

<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua</u>
Ainara		Eider	3	Irati	7	Kattalin	3	Nahia	6	Paule	
Ainhize	3	Eimi Saioa		Iria		Kelly		Nahia Elizabeth		Rania	
Ainhoa	2	Elene		Iruna		Keltze		Nahikari		Rebeca	
Aiora		Emili Covaci		Itsaso		Laida		Naia		Saioa	6
Aitzuri		Enara	2	Itxaro		Leire	9	Naiara	2	Sarai	2
Alaia	2	Garazi	4	Itziar		Lena		Naira		Saroi	
Alaitz		Haizea	4	Izar	4	Leonor		Narrea	7	Sugar-Luying	
Allende		Harriet		Izaro		Lesli		Nayra		Uxue	6
Aloña		Hegoa		Jaidy Chasquina		Lide		Nerea	5	Xana	
Amalur		Helena		Janire	2	Luna		Neuza Leite		Yarina	
Ane	2	Iera	2	Jare		Maddi	7	Oihana	3	Yue	
Anne	2	Ilazki		Jennifer	2	Maidar	2	Oihane	2	Yurak Isabel	
Araitz		Ioana		Joana	2	Mara		Olaia		Ziklali	
Ariane		Iraia	4	Julyeth Rebeca		Maria	5	Olatz			
Aroa	3	Iraide		June	5	Nagore		Paula			

Nesken izenen artean gehien errepikatu direnak:

- 1.- Leire (9)
- 2.- Maddi (7)

- 3.- Naroa (7)
- 4.- Irati (7)
- 5.- Nahia / Naia (7)
- 6.- Saioa (6)

- 7.- Uxue (6)
- 8.- June (5)
- 9.- Maria (5)
- 10.- Nerea (5)

MUTILAK

* Izenaren ondoan kopururik agertzen ez bada, behin bakarrik agertu dela esan nahi du

Izena	Kopurua	Izena	Kopurua	Izena	Kopurua	Izena	Kopurua	Izena	Kopurua	Izena	Kopurua
Abel		Aritz	3	Etor		Janitz		Marcos		Peio	
Adei		Aritza		Etxahun		Javier	3	Maren		Riad	
Aiert		Arkaitz		Ganix		Joanes	5	Markel	3	Rodrigo	
Aimar	6	Asier	5	Goar		Jokin	2	Martin		Ruben	
Aitor	8	Baghdadi-Abder		Goiuri		Jon	3	Miguel	2	Samay Aritz	
Aiur		Beñat	3	Haritz		Jon Martin		Miguel Aingueru		Sebastian	
Alai		Diego		Hegoi		Jon Mikel		Mihai		Sharik Yuyarik	
Alain	2	Eder		Hodei	2	Joseba	2	Mikel	6	Tasio	
Alex	3	Egoi		Ibai	4	Joseba Xabier		Mohamed		Ugaitz	3
Alvaro		Egoitz	3	Iban		Juba		Nelu		Unai	3
Amaiur		Ekai		Iman		Julen	2	Oier	6	Unax	3
Amaru		Ekain		Imanol		Kemen		Oihan	5	Urko	
Amets		Ekaitz	2	Iñaki		Koldo		Oiher	1	Valentin	
Anartz		Eki		Inhar		Lander		Oinatz		Wanis Lasry	
Ander	5	Enaitz		Ioritz		Liher		Omar		Xabat	
Aner		Enaut		Iraitz	3	Lorenzo		Pablo		Xuban	2
Arai Martin		Eñaut	3	Isaac		Luken		Patxi		Yanik Kenai	
Argider		Eneko	4	Ivan		Manex	2	Paul			

Mutilen izenen artean gehien errepikatu direnak:

- 1.- Aitor (8)
- 2.- Oiher / Oier (7)
- 3.- Mikel (6)
- 4.- Aimar (6)
- 5.- Oihan (5)
- 6.- Asier (5)
- 7.- Ander (5)
- 8.- Joanes (5)
- 9.- Ibai (4)
- 10.- Eneko (4)

LEITZAKO DATUAK ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO EKIN ALDERATUTA

Leitzako datuak, esate baterako, Eustatek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian jaso dituen arekin aldera ditzakegu, Eustatek argitaratuta baitaizka. Azkeneko 3 urteko estatistika honaxekoa da:

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 2008-2009-2010 epean gehien jarritako neska-izenak:

- 1.- Nahia / Naia (1.250)
- 2.- Ane (928)
- 3.- June (828)
- 4.- Uxue (730)
- 5.- Irati (713)
- 6.- Izaro (587)
- 7.- Naroa (538)
- 8.- Nora (532)
- 9.- Lucía (49)
- 10.- Maialen (487)

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 2008-2009-2010 epean gehien jarritako mutil-izenak:

- 1.- Iker (1.020)
- 2.- Markel (925)
- 3.- Oier (867)
- 4.- Jon (865)

- 5.- Unai (843)
- 6.- Ander (760)
- 7.- Mikel (748)
- 8.- Eneko (736)
- 9.- Aimar (733)
- 10.- Unax (635)

Leitzako eta EAeko sailkapenak aldearatz gero ikusten denez, gehien errepikatzen diren 10 izenetatik 5 berdinak dira bi lurraldeetan, bai nesken eta bai mutilen zerrendan. Nesken izenen artean bi zerrendetan agertzen dira Naroa, Irati, Nahia/Naia, Uxue eta June, hain zuzen ere. Eta mutil-izenen bi zerrendetan agertzen dira Oier, Mikel, Aimar, Ander eta Eneko. Ikusten denez Leitzan ere nahikoa bat gatoz hiru euskal lurralde horietan duten joerarekin, eta garbi dago izenak aukeratzeko garaian korrante nagusiak, garaia edo modak ere nolabaiteko pisua badutela.



Lasarteren irudiaren inaugurazioa.
Argazkia: Miel Mari Elozegi

Manuel Lasarte

hitzaren errementaria

Orioko herriak, Leitza eta Aiarekin batera, Manuel Lasarteri omenaldia egin zion 2012ko ekainaren 22an. Eta horixe bera, artikulu honen titulua, izan zen omenaldiaren izenburua: *Hitzaren errementaria*. Horrek ongi samar biltzen ditu Manuelen bizitzan zehar ardatz izan ziren bi jardun: errementaritza, eta hitza.

Manuel Lasarte aurten hil da, 2012ko otsailaren 12an, Aretxabaletan. Aian eta Orion urte askoan bizitakoa zen, baina Leitza zuen jaioterri, eta denok ongi aski dakigun moduan ez zuen bere sorterria inoiz ahaztu. Pesteterako urteror argitaratzen den Plazaola aldizkarian hainbat urtetan idatzi dituenak ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko.

Manuel Lasartek XX. mendeko bertso gintzan toki nabarmena izan du, Leitza jaioa da, eta uste dugu hori

badela nahikoa arrazoi Marmari aldizkarian ere haren aipamena egiteko, han eta hemen egin zaizkion omenaldiak osatzeko. Eta, bidenabar, ezagutu ez edo haren berririk ia ez zuenak ere zer edo zer gehixeago jakin dezan.

MANUEL LASARTE, FRANKIKO SEMEA

Frankin jaion zen Manuel Lasarte Arribillaga, 1927. urtean, abenduaren 16an. Gurasoak ere, Frantzisko eta Eugenia, leitzarrak zituen. Frankiko bizipenek oroitzapen gozoak utzi zizkieten, urte zoriontsuak egin zituen han. Leitzako oroitzapen horiez ari da honako bertso honetan:

*Ni azitako Franki zarreko
sukaldearen epela,
arrats askotan luak artzen nau
bera gogoan detela.*

Baina oroitzapen garratz askoak ere baditu aldi hartakoak, zortzi senideetatik bat, haren aurreko arreba Joakina hain zuzen ere, zortzi urterekin menigitisak jota hil zitzaielako. Aurrerago ere bizitzak kolpe gogorak eman zizkion, hamazazpi hilabeteko alaba hil zitzaionean esate baterako, banabar-ale bat kontrako eztarritik sartuta, edota emaztea galdu zuenekoan ere. Geroago ere osasun-arazoez edo istripuek dezente zigortu zuten Frankiko bertsolaria.

Leitzan bertan egin zituen lehenda-biziko urteak, 12 urterekin familiarekin Aiara bizitzera joan zen arte. Izan ere, Frankin maizterrak ziren eta baserria utzi beharra egokitu zitzaien. Aiatik, aurrerago, Oriara joan zen, eta bertan bizi izan zen 2012. urtearen hasieran hil zen arte. Beste langintzaren batean

ere ari izan bazen ere, bere bizitzako denbora gehienez errementaria izan zen ogibidez. Oso goiz hasi zen Manuel lanean, hamaika urte ingururekin, koinatuaren Aiako ferratokia. Bizikletan joaten ziren Frankitik Aiara, Manuel aurreko palankan jarrita. 12 urterekin Aiara etorri ondoren, basoan ere lanean aritu zen, pintxe-lanean hain zuzen ere. Handik Zumarragara morroi eta ganadua ferratzen aritzera, eta Eibarrera ondoren, lau urtez. Soldaduskara joan baino lehen Aiara itzuli zen berriz koinatuarengana, eta soldaduskatik etorrira Zarauzko eta Oikinako ferratokiak aritu zen. Zarautz eta Oikina-ko ferratokiak utzita hasi zen Orion errementari lanean:

*Sua pizten genduen
guk goizetikan goiz,
bostak aldean edo
lentxiago iñoiz;
bazter danak beteak
atxur zarrez ta laiz,
aiek altzairatutzen
jarduten giñan maiz*

MANUEL LASARTE, BERTSOLARI

17 urterekin hasi zen Manuel bertsotan, eta 40 urte inguru eman zituen plazaz plaza. Lehendabiziko plaza Ermuan egin zuen, Lamitegirekin eta afari giroan. Lehendabiziko bertsoak plazan, berriz, Zaldibarren. Hemezortzi urterako herriz herri zebilen bertsotan. Makina bat bertso-saio dauzka eginak ordutik Euskal Herrian barna, eta jardun horrek aski ezagun bihurtu du bertsozaleen artean, batez ere, logikoa den bezala, aurreko belaunaldietako bertsozaleen artean.

Gaszte hasi zen Manuel orduko bertsolaririk ezagunenekin bertsotan. Hemezortzi urterekin Basarri eta Uztapiderekin ari zen, eskuz esku. Uztapiderekin, hain zuen ere, bertso-saio asko eta asko egin zituen, eta XX. mendeko bertsolaritzako bikote emankorrenetako osatu zuten. *Bidegileak* saileko



Manuel Lasarteri buruzko liburuxkan honakoa aipatzen da:

1987ko Jakin aldizkariaren Uztaila-Iraila alean, Joan Mari Torrealdaik 140 bertsolariri eginiko inkestan, biak azaltzen dira lehen bi tokietan, «bertsolar zahar gogokoenak» galderari erantzutean, hiru izen emateko eskatuta. 66 bertsolarik izendatu zuten Uztapide eta 55ek Lasarte; beste guztiak atzean geratu ziren alde dezentearekin.

Elkar estimatzen zuten, inondik ere, Uztapidek eta Lasartek, eta horren frogada lehendabizikoaren honako bertsoa:

*Zorionean egun batian
gu biok giñan alkartu,
bein ezagutu giñaden eta
geiago ezin bakartu;
landaretxo bat txertatutxian
bezela biok artu,
oraindik gure maitasunikan
ez da ziara igartu.*

Eta Basarrik ere estimatan zuen gure bertsolaria, hitz hauek erakusten duten bezala:

«Nere iritziz, lengo ta oraingo, denbora guztietan izan diran bertsolarietan onen-onenetako bat degu Manuel Lasarte. Euskera bizi dan arte beti gogoan izango dana... Urteak joango dira, belaunaldiak joango dira, baina Lasarte gogoan izango da».

Horiez gainera, bere garaiko beste hainbat bertsolarirekin aritua da, Lazkao Txiki, Xalbador, Mattin...

Txapelketetan, sariketan eta lehia-
ketetan ere parte hartu zuen, nahiz eta ez zen txapelketazalea izan. Ez zuen parte hartu bere garaiko txapelketa nagusietan, esaterako, eta parte hartu zuen horietan ez zen gehiegi nabarmendu. Honakoak aipatu daitezke: Gipuzkoako Bertsolari Gazteen txapelketan 4.; Elgoibarko Saria 1953.ean; I. Billabonako sariketan parte hartu zuen (1952): hegoaldekoek (Lasarte, Uztapide, J.Lizaso) ipartarren (Xalbador, Mattin, Zubikoa) aurka egin zuten, eta hegoaldekoek irabazi; Lousoako saria 1953.ean; Santo Tomaseta Donostia sarian, 1950.ean, 3.; Sarike-
ta Nagusia, 1968.ean, 3.

Manuel Lasarteren bertsokerari dagokionez, haren berri emanen diguten aipu batzuk ekarriko ditugu hona. Honela definitu zuen Antonio Zabalak, konparaziora:

“Ba puntu aberatsik baldin bada, aberatsa orratik Lasarte’ren puntua. Iñork nundik eta nola ez dakiela, oso aurretik asten da Lasarte’ren puntua; bi eta iru silabarekin osatzen dana. Ta silaba oiek ez dira beti itz berarenak; bi ta iñoizka iru itzek ere osatzen dute alditan Lasarte’ren puntua. Orregatik,

MANUEL LASARTEREN ZENBAIT BERTSO

NIRE GURASOAK

Amak azi ninduen
bere besuetan,
ase ta berdinuaz
bular gozuetan;
gero aitari laguntzen
Franki basuetan
artzai ibili nintzan
urte batzuetan
lenengo antxe asi
nintzan bertsuetan.

NERE OFIZIOA

Sua pizten genduen
guk goizetikan goiz,
bostak aldean edo
lentxiago iñoiz;
bazter danak beteak
aitzur zarrez ta laiz,
aiek altzairatutzen
jarduten giñan maiz.

NIRE ALABA ZANA

Jauna zerutik billa
zaizulako jetxi,
lur tristean negarrez
bear nazu utzi;
zerura jua nai dezu
ta nik ezin eutsi,
ia an biltzen geran
bihar edo etzi.

NERE BIZITZA ESTUA

Gure lur maite onetan
bizi bearak penetan
samintzen gaitu benetan
Ene Jainkoa, ez dakt ainbat
sufritzeko nik zer detan;
hoge bat urte auetan,
egunez eta gauetan,
beti nabil naigabetan.

AMA ETA SEASKA

Alaba, gau oso bat oso estua
bein bazenduen izana,
gaur maite dezun semetxo ori
mundura etorri zana.
Zuk aingeru bat egin zendun ta
zu aingeru orrek ama,
une uraxe bera izan zan
ni aiton egin nintzana.

EGUNSENTIA

Egunsenti, argi berri,
zera gure alaigarri,
gauari agur egin diogu
ta zuri ongi etorri.
Bertsolari, abeslari,
denok gara ameslari,
txori gaixoak ere pozikan
asi zaizkizu kantari.

neurrian xuxen ta juxtu, puntuetan aberatsa, zalla, ugaría ta berri-zalea, oiek dituana, besterik gabe ere, ez da nolanaiko bertsolaría izango.”

Bertsozale Elkartek, berriz, bere webgunean honelaxe dauka jaso:

“Kantaera gozo eta ahots sarkorreko bertsolaría, bere hizkera txukun eta bortxagabeagatik, neurri-etenen zuzentasunagatik eta errimaren zorrotasunagatik nabarmendu zen batik bat, garaiko bertsolari erreferenteetako izateraino.”

Uztapidenarak dira hitz hauek:

“Manuel Lasartek neurrian eta puntuan ez du bere berdiñik”.

Eta Joan Mari Lekuonarenak beste hauek:

“Inork ez bezala ematen digu hitzek duten hots-irudizko antza, hitzen hots berdinek elkarren artean duten lokera majikoa”.

MANUEL LASARTE, IDAZLE

Manuel Lasarte bat-bateko bertsolarítzan ezaguna da oso, baina bat-bateko bertsolari ez ezik idazlea ere izan zen

eta zenbait liburu idatzi zituen: *Bertso mordoxka* (1970), *Gordean neuzkanak* (1975), *Lazkao Txiki gogoan* (1994), *Beranduko lanak* (1993), *Enbor zarra- ren ezpalak* (1995), *Kantuaren ordañez* (1997), *Uztapide gogoan* (1999), *Plaza-gizonak* (2005). Azken hori Antonio Zabalak Auspoa sailean argitaratu zuen, eta Zabalaren iritziz, Lasarteren bertsoek eta prosak ageriko zuten “aita batenak” ziren, “Lasarte bi arlo hoietan maixu” baitzen.

OMENALDIAK

1971n Bertsolari Egunean omendu zuten –orain Bertso Eguna izenarekin ezagutzen denean–. 2006ko Bertso Egunean 60ko hamarkadan hasitako bertsolariak omendu zituzten; tartean, Lasarte bera. Hamarkada hartan, Uztapide eta Basarriek zabaldutako bidetik jarraitu zuten Lasartek, Joxe Lizasok, Joxe Agirrek, Imanol Lazkanok, Lazkao Txikik, Mattinek, Xalbadorrek, Jon Azpillagak, Jon Lopategik eta beste hainbestek. Hona-ko bertsoa kantatu zuen Kursaa-lean, saioaren amaiera aldera:

Ikusten degu bertso saioak/ indartzen dihoazela/ Pentsatzen nuen hemen entzule/ ugari bilduko zela/ Nik ere berriz esagai daukat/ pozik etorri naitzela/ Zuenganako det maitasuna/ zuek neretzat bezela.

Leitzan ere egin zioten omenaldia, 1975eko martxoaren 2an hain zuzen ere. Bere hitzetan: “Nere bizitzan izan deten egunik aundiena; bataiatu ninduten egun aundiaren urrengoa, nere ustez:

Nire irudi bat ere or jarri
Dute erriko kalean
Ongille denak eskertu naian
Nabil iñundik alean
Esan nezake: jaio nintzan lur
Bedeinkatu zabalean,
Bularra artzen ari naizela
Gaur amaren magalean

Hainbeste omenaldi jaso dituen bertsolari jaiotzez leitzarrak gurea ere merezi zuelakoan gaude. Izan bedi artikulutxo hau, horrenbestez, Manuel Lasarteri Marmari aldizkariak egin dion omenaldi xumea.

HITZOKEI IV

marmari aldizkariak hasiera -hasieratik izan du gustuko hizkuntzarekin jostatzeko ahalegina, eta makina bat aldiz proposatu dizugu zuri, irakurle horri, zerorrek ere jostatzea eta euskarekin gozatzea eta dibertitzea.

Euskararekin dibertitzen direnen produktua da HITZOKEI, aldizkari honetan bertan lehenago ere azaldu dugunez. Hitzekin jostatzeko ekimen interesgarria da, sortzailea, dibertigarria, eta horregatik egiten diogu tokia gurean.

Hainbat lagunek sortutako hitz berriak ekarri dizkizugu HITZOKEIren laugarren atal honetan, aurrekoetan bezala bi helbururekin: besteen ahaleginaz gozatzea alde batetik, eta bestetik, zerorrek ere ahalegin bera egin dezazun proposatzea, hitzak eta hitz-jokoak asmatuz.

Hitz hauek denak <http://hitzokei.tximinia.net/> helbidean aurkitu ditza-kezu eta zerorrek asmatutakoak ere hara bidal ditzakezu, bestek ere zure sormenaz disfruta dezaten.

Besterik gabe, on egin!

Andre guison: frantziar jatorrizko transexuala.

Angela merkel: Motxileroentzako ostatua.

Arotza: pasio gutxi edo batere ez duen gizona.

Audi rutza: auto berrian gastatu dudana.

Aulki-dantza: hauteskundeen ondorengo dantza tradizionala.

Bejondeizullah: Ortzi handia da, ez da Jainkorik Ortzi ez besterik.

Bideatxurra: mozkortutakoan etxera iristeko egiten den bide bihurgune-tsua.

Biologia: Espezie desberdineko animalien arteko sexu festa.

Bit-artekari: pilota partiduetako apustuak sistema informatiko baten bidez kudeatzen dituen mediodorea.

Erditwo: bikiak jaiotzen direnean

Erein: enplegurako erregulazio espediente aplikatzea.

Federatua: mendizaleen federa erakaria.

Gutierrez metodoa: Guti egin eta errez.

Hi cho minh: Vietnamen yankien aurka borrokan aritu zen euskal internazionalista.

Hildoa: hilkutxak belatokitik hilobiraino egiten duen bidea.

Hipoputamo: Afrikako ibai eta aintziretan bizi den ugaztunik jatorrena.

Ikearagarria: altzari suediarrez beteriko egongela.

Independendentzia: independen-
tziara engantxatuta egotea.

Infinitua: haxixa amaitzeaz dagoenean egin ohi den porro mehea.

Izaretako gerra: Chewbacca eta Leia printzesaren remake pornografikoa.

Izoztea: (1) Te infusioarekin egindako granizatua. (2) Ice T/ren euskal bertsoa.

Jon Maialen: Bertsozale elkarteak sortu duen hibridoa.

Hasuen, jun da: korear batek zure aurretik 14 zortzimilakoak egiten ditue-
nean erabiltzen den konjuntzioa.

Hateatuak: bata bestearen atzetik gain-
ditu gabeko azterketak.

Hissskali: muxu bero-bero-beroek.

Hurrika: zerri lasterketa herrikoia euskararen alde #korrika.

Lanbada: langabeziatik atera zarela ospatzeko egiten duzun dantza.

Loterria: nazionala barik, herrikoa den loteria.

Mer-quechua: salneurri ezin hobea duten mendiko erropen marka, merketuago ezinezko!

Merkelaldia: Alemaniako agintari-
men eginez, Espainian ezarritako behe-
rapen sozial eta ekonomikoak.

Montoa: idazle eta musikari pila.

Motel: hotel mantsoa.

Oh yeah!: ume anglosaxoiak lotara bidaltzeko deia.

Oil asko: koipe anitz duen hegazia.

Oportuno: gainerako jendeak atsedean hartzen duen bitartean, bandurria jo eta "Krabelinak" kantatzera dedikatzen den pertsona.

Pankidermoa: azala lodia duen punky-a.

Pankidermoa (2): krestra duen hipopotamo.

Perikanoa: mokoan duen boltsa kokai-
naz betea duen hegazia.

Polentzero: Txirriak erretzeagatik opariak banatzeaz ahaztu den ikazki-
na.

Presaka: zalapartan, bixi-bixi, azka-
rregi zurrut egiteagatik biharamunean izan ohi den ondoeza.

Q-pela: kalitate goreneko sagardote-
gia.

Sorgin: bifiterria maite duen belagile erlijiosoa.

Suckaldea: felazioa praktikatzeko egongela berezia.

Suka: norbait bere onetik aterata dago-
nean SUKA ari dela esan dakioke. Hika
ta zukaren arteko konbinazio suzkoa
da SUKA.

Trikitrakatrikiton: larunbat arratsal-
detan haurrak pailazoen programa ikus-
ten daudela aprobetxatuz egiten den
sexu-saioa.

Txingoa: txango erotiko-festiboa.

Zatia: zure ahizpa erditu da.

Zu zendu: ikasleen lanen edo azterke-
ten on-gaitzak berrikusteagatik hil.

BA AL ZENEKIEEN...?

EUSKALTZAINDIKO LEHEN LANGILE EMAKUMEZKOA

Maria Pilar Lasarte Zubitur leitzarra, 1937an jaioa, Euskaltzaindik langilea izan zen hogeita hamabi urtez. 1968tik 2000. urtera arte, hain zuzen ere. Euskaltzaindik lehen langile emakumezkoa izan da, eta Euskaltzain urgazlea da 1983az geroztik. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* egiten parte hartu zuen 1970eko hamarkadan, Aingeru Irigarai, Karlos Santamaria, Joxe Migel Zumalabe eta Xalbador Garmendiarekin batera. Lao Zi-ren Dao De Jing taoismoaren biblia euskaratu eta argitaratu zuen.

EUSKALTZAINDIAREN BILERA LEITZAN

1987ko urriaren 23, 24, eta 25ean, Euskaltzaindik Leitzan egin zituen zenbait bilkura: Patxi Zabaleta euskaltzainaren sarrera zela eta. Lexikologi Erizpideak Finkatzeko VII. Jardunaldiak egin ziren, hileroko bilkura, eta, azkenengo egunean, Udaletxean, euskaltzain berriaren sarrerako batzarre irekia. Patxi Zabaletak Damaso Intzaren aulkia hartu zuen, eta sarrera hitzaldian, bestek beste, haren aipamena egin zuen. Horretaz gain, Nafarroako euskararen egotzaz ere aritu zen euskaltzain leitzarra.

LEITZAN AGERTU DEN EUSKARAZKO TESTURIK ZAHARRENETAKO BAT

Leitzan agertu den euskarazko testurik zaharrenetako bat gipuzkerazko sermoi bat da. XVIII. mendean apez izandako Martin Fermin Zabaleta leitzarraren idazkien artean azaldu zen, eta Mikel Olanok eginda dauka horren inguruko azterketa, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko 89. zenbakian. Bertan azaltzen denez, testua nork egin den ez dago argi, baina erabiltzen den euskara ez da Leitzako aldaera, eta baliteke Martin Fermin bera ere ez izatea egilea.

ESKUALDEKO EUSKALTZAINAK

Euskaltzaindia Euskal Herri osoko lagunez hornitu da, eta euskaltzain osoak handik eta hemendik hartu ditu. Gure eskualdeak ere eman ditu zenbait euskaltzain oso, baita hainbat euskaltzain urgazle ere. Historian gure eskualdekoak izan diren euskaltzain osoen zerrenda hauxe da:

- Migel Olasagarre Zubillaga, *Aita Damaso Intza*. (Intza, 1886-1986)
- Agustin Zarrantz, *Aita Polikarpo Iraizozkoa* izenez ezaguna, (Iraizotz, 1897-1980)
- Nikolas Ormaetxea, Orixe. Orexan jaioa, baina txikitatik

eta urte askoan Uitzin bizi izana. (Orexa. 1888-1961)

- Patxi Zabaleta, leitzarra
- Sagrario Aleman, etxalekuarra

FRANKISMO GARAIA EUSKARAZKO ANTZERKIA GOIZUETAN

Goizuetak antzerki taldea izan zuen Frankismo garaian eta hainbat obra egin zituzten herrian eta herritik kanpo. Euskaraz gainera. Horietako bi dira *Uste diñat* (1959) eta *Aberatsak olaxe egiten* (1962). *Uste diñat* antzezlanean neskameen arteko istorioak biltzen dira eta *Aberatsak olaxe egiten* lanean maitasun istorio bat.

II. MUNDU GERRAN EUSKARA ERABILI ZUTEN MEZUAK KODETZEKO

(Iturria: Wikipedia)

Euskara Bigarren Mundu Gerran segurtasuna lortzeko erabilitako sistema izan zen. Bigarren Mundu Gerran, mezuen transmisioa eraginkorra izatea beharrezkoa zen, etsaien transmisioak etenaz edo eragotziz garaipen garrantzitsuak lor zitezkeelako. Horrela, mezu kodetuak deszifratzea



gatazkan murgilduta zeuden armada guztien helburu bihurtu zen.

Ildo honetan, Amerikako Estatu Batuetako armadak erabili zituen ezkutuko transmisioen eraginkortasuna eragotzeko aurkariarentzat ezezagunak ziren hizkuntzak. Daniel Arasa historialariak aditzera eman duenaren arabera, Ozeano Bareko gatazka-lekuan, euskara komunikazioetarako lengoaia izan zen, Estatu Batuetako itsasontzien artean japoniarrek mezuak deszifra ez zitzaten. Gauzak hala, estatubatuarrentzat gerora funtsezkoa izango zen *Guadalcanal* kanpaina (Ozeano Bareko Salomon uharteetatik handiena den Guadalcanal uhartean egin zena) euskaraz hasi zen. 1942ko abuztuaren 1ean “egon arretaz x egunari” mezuaren bitartez guduaren hasiera egunaren berri eman zen, eta abuztuaren 7an, “Sagarra eragintza Zazpi” esaldiaren bidez, japoniarren ezustekorako, erasoari ekin zioten.

Orduraino makinaren bidez enkriptaturiko mezuak erabiltzen ziren (adibidez, SIGABA makina), baina transmisioak oso motelak ziren, eta, gainera, japoniarrek deszifratzeko arriskua zegoen. Makina bidezko enkriptazioaren aldean euskarak abantaila batzuk eskaintzen zituen: alde batetik, etsaiarentzat hizkuntza guztiz arrotza zen, eta, bestetik,

komunikazioaren bi aldeetan marine elebidunak jarrita prozesua asko arintzen zen, mezuak idazteko inolako beharrik ez zegoelako.

Kode sistema honen erabilera sustatu zuena Frank D. Carranza kapitaina izan zen, Mexikon jaioa, baina gurasoak bizkaitarrak zituenak. Carranza kapitaina San Frantziskoko Transmisio Zentroan zegoela, 1942ko maiatzean milaka soldadugai heldu ziren Nevada, Kalifornia, Idaho, Oregon eta Mendebaldeko beste estatu batzuetatik. Bera ohartu zen, horien guztien artean, euskaldun jatorria zuten 60 gizon zeudela, eta gainera euskara zein ingelesa ondo menperatzen zituztela.

Carranzak euskarak zituen abantailak aurkeztu ondoren, operadore euskaldunak prestatzen hasi ziren, lehenbailehen, euskarazko transmisioekin hasi zitezten. Ozeano Bareko ontziteriaren almiranteak, Nimitz-ek berak ere, kode sistema hau erabiltzeko hiru ofizial euskaldun jarri zituen bere mendean: Nemesio Agirre kapitaina, eta Fernandez Bakalkoa eta Juanna tenienteak. Hortaz, euskarazko jargoi kodetua sortu zen tropei aginduak emateko, adibidez, “Aurreratu hondartzak”, hondartzak gainditzea ezinbestekoa zela adierazteko; “Arreta zuhaitzari”, etsaiak zuhaitzen adaburuetan zeudela ohartarazteko; “Lur epaira, indar epaira indartsuak”,

etsaiak lubaki eta gotorleku indartsuak zituztela jakinarazteko...

Esan beharra dago euskara ez zela izan japoniarrei iruzur egiteko erabili zen hizkuntza gutxitu bakarra. Japoniarren zoramenerako, tarteka eta nahasian, Amerikako jatorrizko zenbait herriren hizkuntzak ere erabili zituzten. Adibidez, astelehenetan euskaraz egiten zuten; astearteetan, navajoz; asteazkenetan, irokesez; ostegunetan, komantxez; ostiraletan euskaraz; larunbatetan denetarik pixka bat; eta igandeetan berriz ere navajoz.

Ozeano Bareko gatazka-lekua handiagotu zenean, euskaldunen kopurua urria zela ikusita, ezinezkoa izan zen euskararen erabilera orokor batekin jarraitzea. Beraz, euskara eta beste indiar hizkuntza gutxiagotu batzuen erabilera pixkanaka-pixkanaka lekua galtzen hasi zen, navajoarena aldiz gailenduz.

Carranza kapitainari dagokionez, 1943ko otsailean bukatu zen Guadalcanal kanpainatik bizirik atera zen, eta geroago Europako kanpainan parte hartu zuen. 1944ko abuztuan, Carranzak soldadu talde bat berarekin zeramala, Normandiako lehorreratzearen ondoren eta Frantziako lurralde gehienak askatzear zeudela Iparraldera heldu zen, Irun-Hendaia nazioarteko zubira, hain zuzen ere, eta bertan Frantziako eta Estatu Batuetako banderak jarri zituzten.





Horrela nahiko zuten Leitzako plaza orduko udal agintariak, futbolaririk eta zalapartarik gabe.

XX. MENDEKO LEITZAKO zenbait jakingarri

XX. mendea duela gutxi bukatu zen. 100 urteko aldia izan zen, eta gauza asko gertatu zen tartean, baita Leitzan ere. Guk garai hartako kontutxo batzuk ekarri nahi izan ditugu hona, eta udaleko artxiboari eskatu diogu zer edo zer kontatzeko. Artxibo horrek erakutsi dizkigun istorio edo jakingarri horietako batzuk ekarri dizkizuegu hona, besterik ez bada, herri honen historia-

ri buruzko ezagutza pixka bat hobetzeko, eta gauza batzuk dezente aldatu direla—eta beste batzuk ez hainbeste—ikusteko.

AUZOLANA

Auzolana gure inguru honetan bizirik dirauen ohitura da, historian zehar ongi errotua eta guretzat esanahi handikoa. Auzolanerako eginbehar horretan, ordea,

pertsonak tartean direla logikoa den moduan, hutsegiteak ere gertatzen ziren. 1931ko azaroaren 15eko bando batean, orduan Leitzako alkate zen Luis Lacunza Beamontek, ikusita auzolanerako garaian gertatzen ziren hutsegiteak, arau batzuk ezarri zituen. Honakoak, esaterako:

- Udalak eskatuz gero, eta Nafarroako administrazio-araudiaren arauak jarraituz betiere, herritarra behartuta zegoen auzolanean parte hartzera.
- Auzolanerako adina: 15 urtetik 60 urtera.



Gaur egun bezala, 1936ko Aberri Egunean ere Ikurriñari agurra egin zioten dantzariak.

- Auzolana egitetik libre gelditzeko auzolan bakoitzeko 4 pezeta ordaindu behar ziren (ondoan, eskuz, 15 pezeta jartzen du). Diru hori langile bati ordaintzeko erabiliko zuten.
- Baiezkoa eman eta gero auzolanera agertzen ez zenak 5 pezetako isuna ordaindu beharko zuen (ondoan, eskuz, 15 pezeta jartzen du).
- Goizeko 8etarako agertu behar zen lanerako. 8etatik 9etara bitartean iristen zenak pezeta bateko isuna ordaindu beharko zuen. 9etarako agertu ez zenak 5 pezetako isuna, ez-agertutzat hartuko baitzuten.

Azkenik, alkateak jakinarazten zuen aurreko arauak hausten zituena gogor zigortuko zutela.

ESKOLARA JOAN BEHARRA

Gaur egun herriko ume guztiak eskolara joaten dira, eta ziur asko inori ez

zaio burutik pasatzen hala ez izatea. Garai batean, ordea, oso bestelakoak izaten ziren kontuak, eta hori erakusten digu Jose Maria Zabaleta Lizarragak 1931ko abenduaren 18an egindako oharrrak. Lizarraga Leitzako Lehen Hezkuntzako Kontseiluko lehendakaria zen, eta ohar baten bitartez jakinarazi zuen 6 eta 14 urte bitarteko haurrek eskolara joan behar zutela.

Honela zioen zabaldutako oharrrak (gerok euskaratua):

“HONAKOA JAKINARAZTEN DUT: D. Juan Escribano Gimenez irakasle maisu interinoak herri honetako haurren Eskolako Nazionalako jabetza hartuta, eskolako adinean dauden haur guztiek, sei eta hamalau urte bitartekoek, matrikulatuta egon edo ez, nahitaez joan behar dute eskolara. Hala egiten ez badute, gurasoen erantzukizun legala izanen da.

Halaber, helduen eskola irekiko da. Bertan matrikulatzeko zortzi eguneko epea irekiko da, bando hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.”

JANTOKIA ESKOLAN

1932. urtean, Leitzako alkate Luis Lacunza Beamontek jakinarazi zuenez, Eskolako Kontseiluak, Udalaren laguntzaz, eskolan jantoki bat irekitzea erabaki zuen. Jantokia erabili zezaketen pobre ziren familietako haurrek (pobreak zirela nabarmena izan behar zuen, “reconocidamente pobres” jartzen baitzuten jatorrizko testuan), eta baita urruti zeuden baserrietako haurrek ere, horiek ezin zutelako beren etxean bazkaldu.

PLAZAN FUTBOLEAN ARITZEA GALARAZIA

Haurrak edo gazteak futbolearen aritzea ez da oraingo kontua, inork hala dela

pentsa balezake ere. 1935. urtean ere halaxe aritzen ziren leitzarrek, Juan Lasarte Lasarte alkatearen oharrek erakusten digunez. Izan ere, herriko plazan futbolearen aritzea debekatu zuen aipatutako ohar horren bitartez.

Nonbait, plaza inguruko auzoak behin eta berriz kexatzen ziren herriko plazan futbolearen aritzeak eraikinetan eta pertsonengan sortzen zituen arriskuak zirela-eta. Familiei kalte egiten omen zien, baita herrian behar zen ordena egokiari ere. Auzoei kasu egin zien alkateak, eta herriko ordenantzetako 31. artikuluan oinarrituta, herriko plazan futbolearen aritzea erabat debekatu zuen. Araua hausten zuenak 15 pezetako isuna ordaindu beharko zuen, eta gainera udal langileek baloia kenduko zioten.

ABERRI EGUNA LEITZAN

1936ko maiatzaren 30eko *La Voz de Navarra* egunkariak Leitzan egindako Aberri Egunaren berri eman zuen. Euskaraz idatzitako berriak honela dio, hitzez hitz:

ABERRI EGUNA

Leitze-ko abertzaleak, jaikun ederrak antolatu dituzte Aberri egunerako.

Ara emen:

30 Larunbata:

Illunabartxoan, Batzoki-ko txistulariak ibiliko dituzte erriko kale guztiak, biribilketa ala-alaiak joaz.

PAZKO EGUNA

Egun aseran bezpera-ko txistularian berak joko dute goizerestia.

Amar-terdietan, Meza nagusia erriko Eleizan; eta Meza ondorean, edo amaika-terdietan pillota yoko bikaña eskuz.

Jokatuko dute, Goiburu, Leitze-ko botikarioa ta Etxeberria Ezkurrekoa. Pako Eratsundarra ta Leitze-ko Larra-tzen aurka.

Arratsaldeko bostetan berriz, Leitze-ko poxpoliñak ta ezpatadantzariak, dantzatuko dituzte erriko enparantzian.

1.- Dantzari guztiak errokaiztuko dira.

2.- Poxpoliñak dantzatuko dituzte:

- 1.- Lauburu-dantza
- 2.- Leitze-ko Ingurutxo
- 3.- Zinte-dantza
- 4.- Sagar-dantza
- 5.- Zozo-dantza
- 6.- Inguru-txiki ta esku-dantza
- 7.- "Lekarotz" en Indar-kirola

3.- Ezpatadantzariak dantzatuko dituzte:

- 1.- Ikurriñari agurra
- 2.- Banako
- 3.- Biñako
- 4.- Zortziko
- 5.- Makil-dantza
- 6.- Ezpata-dantza
- 7.- Txakarrankua

4.- Dantza ok amaitutakoan erromeria illun ezkilleraño.

5.- Arratse-ko bederatzieta ta Aberri -Eguna ondo osatzeko, Euzko-Etxean egingo da apari eder bat.

D. Juan Lasarte Lasarte Alcalde Presidente del Ayuntamiento de LEITZA.

HAGO SABER: Que en el Boletín Oficial de la Provincia de 2 del actual número 131 se ha dictado por el Excmo. Sr. Gobernador Civil la siguiente CIRCULAR.

Con motivo de la lucha que antaño sostenían nuestros héroes Ejército y las valientes Milicias voluntarias contra los asonados de España, ocurre frecuentemente que para demostrar el entusiasmo público con motivo de faustos sucesos de la campaña, o para conmemorar festividades oficiales o religiosas, se utilizan voladores cuyos colores no son los nacionales.

Es de absoluta necesidad que los vecindarios se den cuenta de que la nota de patriotismo debe predominar siempre en estas manifestaciones populares; y como para conseguirlo es preciso dictar normas concretas acerca de este particular, he acordado de que por las Ares. Alcaldes se ordene a los respectivos términos municipales que en las fiestas nacionales los vecinos todos deben engalantar las casas con los colores de nuestra bandera, y si bien se pueden emplear las voladuras que ya tengan, exigirá que sobre ellas figuren con distintivo bien visible, dichos colores. Respecto del uso de banderas, pueden engalantarse los edificios con las que están autorizadas, pero acompañadas siempre de la bandera Republicana que se colocará en lugar preferente.

También es frecuente ver en los coches la bandera nacional en lugar que no le corresponde. Para corregir esta anomalía, queda prohibido el uso de bandera alguna que no vaya acompañada de la española, ésta siempre en lugar de preferencia y nunca en la cuarta, por estar indicada dicho sitio para los coches oficiales exclusivamente.

Lo que hago saber por medio de este periódico oficial para general conocimiento y cumplimiento; debiendo los Ares. Alcaldes hacer público lo que se ordene por medio de bando o en la forma que resulta más eficaz, y denunciar a los infractores para imponer las sanciones a que haya lugar.

Leitza 31 de octubre de 1936. -El Gobernador Modesto Font. -
Lo que se hace público para general conocimiento y cumplimiento de toda el vecindario.

Leitza 3 de noviembre de 1936.

El Alcalde



Juan Lasarte

D. Juan Lasarte Lasarte, Alcalde Constitucional de esta villa de LEIZA.

Siendo constantes las quejas del vecindario ante esta
Alcaldía, sobre los peligros que ocasiona en los edifi-
cios y seguridad de las personas de tránsito, el ejer-
cicio del Juego de Patuco en la plaza pública de esta
villa, con perjuicio de las familias y del buen orden
que debe reinar en la localidad,

HAGO SABER: Que de conformidad con el artículo
51 de las vigentes ordenanzas municipales, queda pro-
hibido totalmente el ejercicio de dicho juego
de Patuco en la plaza pública de esta villa, bajo la
multa de una a quince pesetas por individuo, siendo re-
sponsable el bieldo por los dependientes de mi Autoridad.

Lo que se hace público para conocimiento de todos
los vecinos y debida cumplimiento.

Leiza a 8 de Junio de 1936.

El Alcalde



Juan Lasarte

ESPAINIAKO BANDERA

Azken urteotan agintariak tematuta dabilta Leiztan eta beste zenbait herri-
tan Espainiako bandera jarrarazteko. Ez da berria tema hori, nolanahi ere. 1936. urtean, gerra garaian hain zuzen ere, badugu aurrekari bat, Leitzako alkate Juan Lasarte Lasarte alkatearen 1936ko azaroaren 3ko jakinarazpenean ikus litekeena. Honela dio, hitzez hitz eta gatzelania batuan:

“HAGO SABER: Que en el Boletín Oficial de la Provincia de 2 del actual núm. 131 se ha dictado por el Excmo. Sr. Gobernador Civil la siguiente CIRCULAR.

Con motivo de la lucha que actualmente sostiene nuestro heroico Ejército y las valientes Milicias voluntarias contra los enemigos de España, ocurre frecuentemente que para demostrar el entusiasmo público con motivo de faustos sucesos de la campaña, o para conmemorar festividades cívicas o religiosas, se utilizan colgaduras cuyos colores no son los nacionales.

Es de absoluta necesidad que los vecindarios se den cuenta de que la nota de patriotismo debe predominar siempre en estas manifestaciones populares; y como para conseguirlo es preciso dictar normas concretas acerca de este particular, he acordado de que por los Sres. Alcaldes se ordene en los respectivos términos municipales que en las fiestas nacionales los vecinos todos deben engalanar las casas con los colores de nuestra bandera, y si bien se pueden emplear las colgaduras que ya tengan, exigirán que sobre ellas figuren con distintivo bien visible, dichos colores. Respecto del uso de banderas, pueden engalanarse los edificios con las que están autorizadas, pero acompañándose siempre de la bandera Española que se colocará en lugar preferente.

También es frecuente ver en los coches la bandera nacional en lugar que no le corresponde. Para corregir esta anomalía, queda prohibido el uso de bandera alguna que no vaya acom-

pañada de la española, ésta siempre en lugar de preferencia y nunca en la capota, por estar indicado dicho sitio para los coches oficiales exclusivamente.

Lo que hago saber por medio de este periódico oficial para general conocimiento y cumplimiento: debiendo los Sres. Alcaldes hacer público lo que se ordena por medio de bando o en la forma que resulte más eficaz, y denunciarme a los infractores para imponer las sanciones a que haya lugar”.

HERRITIK ATERATZEKO BAIMENA

Leitzatik ateratzeko ez diogu inori baimenik eskatzen. Autobusa, autoa, bizikleta edo motorra hartu, eta bagoaz. Beti ez da hala izan, ordea. Gerra zibilaren ondoren, herritik ateratzeko *ibiltzeko baimena* edo *salbokonduktoa* behar zen. Gobernadoreak Leitzako alkateari eman zion baimen horiek banatzeko ahalmena, eta alkateak ohar bat zabaldu zuen horren inguruko argibideak emateko.

Ibiltzeko baimena eskuratzen zuenak 50 xentimo ordaindu behar zituen. Diru hori Nafarroako Gobernu Zibilarri ematen zitzaion.

Baimena behar zuenak bere burua identifikatu behar zuen, inprimakiak -eta bete, eta argi adierazi behar zuen nora joan nahi zuen, eta zertara.

Ez zuten baimenik ematen Espainiako estatuko lurretan barrena libre ibiltzeko. Toki jakin batzuetara joateko baimena besterik ez zen ematen, eskara zehatza egin behar baitzen.

Falangeko militanteek, edo FET eta JONSeko karneta zutenek, ez zuten *ibiltzeko baimen* horren beharrik, muga inguruetara edo protektoratuetara joateko izan ezik. Zegozkien kuotak ordainduta baldin bazituzten, betiere.

1940. urteko agiria da hori guztia kontatzen diguna, duela 72 urtekoa beraz.



Euskararen inguruko gogoeta

Leitzan

Euskara osagai garrantzitsua da gure bizitzan, baita gure herriko bizitzan ere. Eta garrantzitsua iruditzen zaigulako eta estimatzen dugulako, hain zuzen ere, erabiltzen dugu, eta horrexegatik ere egin ditugu hainbeste urrats euskararen alde.

Egindako lan horrek eman du bere fruitua, eta asko da bidean irabazitakoa. Badugu, ordea, oraindik ere irabazi beharreko asko, eta egin dugun lanean eta egiten ari garen lanean zailtasun eta ezintasun batzuk ere agertzen zaizkigu.

Euskararen aldeko lanean egiten ari den ibilbidean, tarteka gogoeta egiteko denbora hartu behar da. Hain zuzen ere, ibilbide eta lan horren ebaluazioa egiteko, gaurko egoera aztertzeke, eta etorkizunerako norabidea berresteko, egokitzeke, aldatzeko...

Aurten gogoeta hori egiteko prozesua martxan jarri zuen eskualdeko euskara zerbitzuak martxoa eta maiatza bitartean, eta gogoeta horretan parte hartzeko deia egin zien euskararen eta euskal kulturaren inguruan lanean ari diren pertsona, talde eta elkarteei. Euskarari dagokionez nondik gatozen, non gauden eta nora goazen aztertu genuen beraz, herriko eta eskualdeko norbako eta eragileekin batera, eta bizpahiru hilabeteko tarte hartu genuen horretarako. Ezinbestekoa iruditzen baitzaigu guztion ekarpena, gogoeta benetan emankorra eta eraginkorra egiteko.

Helburu nagusia aurrera begira egin beharreko lanaren norabidea finkatzea izan zen: gure iparra zein den, nondik jo behar dugun, zeri eman lehentasuna...

Hori guztia, orain arte egindako lanaren nolabaiteko ebaluazioan eta gaur egungo diagnostikoan oinarrituta.

Gogoeta egiteko norbanakoen nahiz eragileek ekarpenak jasotzen saiatu ginen, eta horretarako bi tresna nagusi erabili genituen: galdetegiak, alde batetik, eta lan-saioak edo bilerak bestetik. Hiru galdetegi bete genituen (ebaluazioa, diagnostikoa eta aurrera begirako norabidea), eta hiru bilera egin, horiek ere aipatutako hiru ardatz horien gainean.

Galdetegiak bakarka osatu genituen, eta lan-saioak edo bilerak galdetegietan jasotakoan oinarrituta egin genituen. Bai bata eta bai besteak emandakoarekin, datozen urteotarako norabidea eta plana finkatuko du eskualdean Euskara Mankomunitateak.



GOGOETAREN ONDORIOAK

Azaldu dugun moduan, jendea pentsatzen eta elkarrekin iritzia trukatzeko jarri genuen, eta denon artean ondorio batzuk atera genituen. MARMARI aldizkariko irakurlearentzat ere interesgarriak izanzen direlakoan, ondorio horiek hona ekarri ditugu. Hementxe dituzu, labur bilduta:

EGINDAKO LANAREN BALORAZIO OROKORRA

Euskara normalizatzeko eta sustatzeko azkeneko 15-20 urteotan Leitzan egin den lanaren balorazio orokorra ona da, eta galdetegian 7-8ko puntuazioa eman zaio lan horri. Herriko eragileek zehazki (Udala, euskara zerbitzua, ikastetxeak, euskaltegia, komunikabideak, kultur taldea...) euskara normalizatzeko egindako lanari ere 7-8 arteko puntuazioa eman zitzaion. Hobetzeko eta zuzentzeko gauzak badaude, jakina, eta aipatu ziren horietako zenbait, baina egindako lana eta ahalegina egokia eta ona izan dela uste dute prozesuan parte hartu zutenek.

LAN-ILDOEN ETA EKIMENEN EMANKORTASUNA

Euskara normalizatzeko eta bultzatzeko azkeneko urteotan egindako lanean lan-ildo eta ekimen emankorrenak zein izan diren galdetu zen, eta honakoak

aipatu ziren: merkataritza; familia; aisialdia; kultur taldea; eskola; haur eskola; udala; euskara zerbitzua, UEMA; Bai Euskarari; herriko ekitaldiak euskaraz egitea; euskarazko komunikabideak (Karrape irratia, Ttipi-Ttapa, Marmari, Hitza, Berria)...

Euskara normalizatzeko eta bultzatzeko azkeneko urteotako lanean hain emankorrak izan ez diren lan-ildoez eta ekimenez ere galdetu genuen, eta honakoak aipatu ziren: etorkinak; gazteen komunikatzeko era; gurasoen arteko harremanak; lan-mundua eta merkataritzako sektore batzuk...

Normala den bezala, ez dago lan-ildo edo ekimen perfekturik, ezta deus eman ez duen edo erabateko porrota izan denik ere. Emankor izan diren guztietan bada zer zuzendua, eta emankor izan ez direnek ere utzi dute irabazi edo ondorio txikiren bat. Badago aldea, nolanahi ere, abian jarri diren ekimenen artean, eta lagungarria da zertan asmatu den eta zertan ez jakitea, gauzak zuzendu ahal izateko eta indarrak egoki bideratzeko.

ZAILTASUNAK

Artikulu honen sarreran ere esana dago euskararen aldeko lanean zenbait zailtasun agertu dela urteen joan-etorrian. Galdetegian eta bileretan parte hartu zutenen ustez euskararen aldeko lanean

azkeneko urteotan izan ditugun zailtasunik handienak hauek izan dira:

- Zailtasun ekonomikoak eta politikoak: murrizketak euskal komunikabideak sustatzeko.
- Zailtasunak komunikabideen alorrean: TDT jarrita, ETB gainbehera.
- Nafarroako Gobernuak jarritako zailtasunak.
- Euskalduna lasaitzea erdararen alde-rako.
- Udaletik kanpoko euskalgintza ahul egotea.
- Garai bateko militantzia, euskararen aldekoa, itzaliagoa egotea gaur egun.
- Iruñeko zerbitzuetan (Osasunbidea, Inem, hezkuntza, gizarte segurantz...) gertatzen den hizkuntza eskubideen urraketa
- ...

AURRERA, ATZERA EDO ANTZERA?

Hainbeste urtetan euskararen alde egindako lanak ondorioak izan ditu, baita emaitza bat ere. Leitzan euskararen egoera ona dela baloratu da, batez ere Nafarroako edo Euskal Herriko gainerako eskualde gehienekin alderatuta. Gisako balorazioak subjektiboak eta erlatiboak direla jakin badakigun arren, euskararen egoera puntuazio batekin baloratzeko eskatu zitzaizen prozesuan parte hartu zutenei, eta Oitk 10erako

eskan 8aren inguruan kokatu zuten euskararen egoera Leitzan.

Euskaltzaleon artean sentsazio orokorra eta zabalduena da euskararen normalizazioan aurrera egin dela, espazio batzuetan bereziki: bertako hedabideak, irakaskuntza, merkataritza mundua, hizkuntza paisaia, aisialdia, gazteen arteko erabilera, udal administrazioa... Horietan guztietan aurrera egin dela sumatzen da, eta garbi ikusten da lehenago aipatutako lan hori guztia egin ez balitz ez ginatekeela egonen gaur gauden tokian.

Horrekin batera, nolanahi ere, ikusten da euskararen egoerak badituela oraindik zulo batzuk ere, baita irabazteko espazio batzuk ere: gurasoen erabilera, etorkinen arloa, euskararen kalitatea, Nafarroako Gobernuaren administrazioa, komunikabide orokorrak...

Balantzea, beraz, gazi-gozoa da: bistan da aurrera egin dela, baina, era berean, bistan da euskararen egoera ez dela euskaltzaleak nahiko lukeen bezain ona eta badituela oraindik ere gabezia handi samarrak.



euskara ZERBITZUA
ARANO, ARESO, GOIZUETA eta LEITZA

EUSKARAK IRABAZITA ETA IRABAZTEKO DITUEN ESPAZIOAK

Euskarak irabazita dauzkan espazioak eta irabazteko dituenak aztertu ziren gogoeta-prozesuan zehar, nahiz eta batzuk sail batean edo bestean kokatu daitezkeela ikusi zen. Euskara da nagusi, esate baterako, bertako hedabideetan, haur eskola-eskola-institutuan, Leitzako Udalean, bertako kultur jardueretan, herriko talde eta elkarte gehien funtzionamenduan.... Erdara da nagusi, ordea, Nafarroako Gobernuaren edo Estatuaren administrazioan, Interneten, hedabide orokor gehienetan.... Oro har, bestalde, ikusi zen espazio gehienak ez direla homogeenak, eta denetan egon litekeela zer edo zer irabazteko, gehiago edo gutxiago.

EUSKARAREN ALDEKO NAHIZ AURKAKO FAKTOREAK LEITZAN

Leitzan euskarak alde nahiz kontra dituen indarrak eta faktoreak identifikatu ziren galdetegian eta egindako lan-saio edo bileretan. Asko agertu ziren, bai aldekoak eta bai aurkakoak, eta guztiek pisu bera ez duten arren sailkatu eta ordenatu gabe emanen ditugu. Horrela jaso genituen, hitzez hitz:

• Euskararen aldeko faktoreak:

- Gero eta gehiagok euskaraz egiten dugula.
- Giroa euskalduna da.
- Haur eskola, eskola eta institutu euskaldunak.
- Herri identitate indartsua.
- Inguruko hiri edo herri erdaldunekiko nolabaiteko “distantzia”.
- (Euskarazko) mugimendu sozialerako joera eta talde kopuru ugaria.
- Familiartekoen eta aitona-amonen transmisio eta hartu-eman aberatsa.
- Jende ugariren gaiarekiko kontzientzia eta erantzukizuna.
- Euskal kultura eta tradizioarekiko atxikimendu handia.
- Naturaltasuna.
- Euskararen aldeko sentimendu eta militantzia oso sakona duen jende kopuru sendo bat.
- Euskara zerbitzua.
- Euskarazko komunikabideak, aldizkariak.
- Euskaraz bizitzeko aukera izatea.
- Euskararen inguruan egiten diren ekimen guztiak.
- Herriko instituzioetatik jartzen den borondatea eta gogoia.



- Testuinguru zehatz eta ezagun bat: herri euskalduna, bertako administrazioa eta zerbitzuak euskaldun.
- Zerbitzuetan lanean ari den jendea euskalduna dela gehien-gehiena.

• Euskararen aurkako faktoreak:

- Gure artean erdaraz hitz egiteko ohitura.
- Herrian urte asko bizitzen daramatzatenak eta euskaraz ikasten saiatu ez direnak.
- Nafar administrazioaren jarrera ezkorra/kaltegarria.
- Pertsona askoren utzikeria edo axolagabekeria (gazteleraz hitz egitera eramaten duena).
- Lanerako Leitzatik irteteko beharra (eta ondorioz, erdaldunekin ordu asko igarotzea).
- Euskarazko komunikabideei egiten zaaien erasoak.
- Erdarazko informazio iturrien bonbardaketa.
- Batua eta gure euskalkia kontrajartzeko joera (urterik urte ustez gutxitzen ari dena, zorionez).
- Zenbaiten euskararekiko “harrotasun falta” edo “konplexu zentzugabeak”.
- Alfabetizazio beharra.
- Telebista eta komunikabideak.
- Euskaraz sortzen dena ezagutzea askoz zailagoa da.
- Nafarroako Gobernua: euskal komunikabideei diru laguntzak murriztu, eta orokorrean euskararen munduari oztopoak jarritz.
- Dakigunok zenbaitetan ez erabiltzea.
- Umeekin beti euskaraz baina gurasoen artean beti ez.
- Politika, euskara eta alderdi jakina lotu direlako.
- Gobernutik egiten diren kontrako politikak.
- Oraindik batzuek konplexua izaten jarraitzen dute euskaraz egiteagatik, erdarak estatus altuagoa du oraindik batzuentzat.



- Kanpo faktoreak, alegia: komunikabideak, teknologia mailako hainbat aurrerapen, administrazio orokorraren atxikimendu falta.
- Euskaldunok dugun gaitasun eza euskara sortzeko, batez ere, ingurune ez formaletan.
- Osasunbidea, Iruñekoa eta herrian bertakoa ere bai.

EUSKARAREKIKO JARRERA

Ezagutza eta erabilera garrantzitsuak dira, jakina, baina baita jarrerak ere. Leitzarren jarrera ere euskararen aldekoa edo oso aldekoa dela baloratu da. Izanen dira salbuespenak, baina oro har euskararen aldeko jarrera da nagusi Leitzaan.

ETORKIZUNA

Euskararen egoera ona dela adostu zen gogoeta-prozesu honetan, baina argi samar ikusten zen, bestalde, egoera on hori ez dela egoera ziurra eta behin betikoa. Etorkizunera begira hutsuneak eta arriskuak ere egon badaude, eta aurrera egin den bezalaxe atzera ere egin daiteke, eta ez dago inolaz ere erlaxatzerik. Euskararen aldeko lanean tinko jarraitu behar da, beraz.

Eta aurrera begira jarritz gero, helburua euskaraz bizitzea izan behar da gehien ustez. Euskara normaltasun

osoz herriko bizitzako espazio, momentu eta leku guztietan erabiltzea. Bitartean, helburu zehatzagoak eta epe laburragoak ere badaude, esate baterako herritar guztien kontzientziazioa lantzea, eta herriko espazio zehatzetan euskararen erabilera handitzea. Aurrerantzean egin beharrekoa honela azal daiteke, labur-labur: euskarak irabazitako espazioei eutsi egin behar zaie, eta irabazi gabe daudenak irabazi.

Gogoeta estrategikorako azkeneko saioan egin litezkeen ekintzen aipamena egin zen. Gaur egun egiten diren horiez gainera, beste ideia zehatz batzuk ere aipatu ziren, datozen urteotako planetan txertatu litezkeen aztertze-ko.

EUSKARA, DENON ARDURA

Eta, azkenik, euskararen normalizazioaren ardura herri osoarena dela ere esan zen. Egin beharrekoa, beraz, denon artean egin behar da, nahiz eta egiteko horretan ardura berezia izan Udalak berak, euskara zerbitzuak, euskara batzordeak, haur eta helduen irakaskuntzako eragileek eta kultur eragileek. Baina, bistan da, euskarak etorkizun osasuntsua izanen badu Leitzaan, beharrezkoa izanen da herritar guztiok hala nahi izatea eta denok horren alde egitea.

Bai euskarari ziurtagiria



Esparru sozioekonomikoan eragiteko eta euskararen normalizazioan urratsak egiteko, besteak beste, gure eskualdeko zenbait udalerritan Bai Euskarari Akordioa abiatu zen 2004. urtean, eta horren ondorioz etorri da Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekimena.

Ekimenaren oinarritzko abiapuntua honakoa da: herri euskalduna gara, euskara egunero eta asko erabiltzen da hemen, baina normalizazioan oraindik ere aurrerago joan nahi dugu. Normalizazioa, azken batean, hizkuntza denetarako erabili ahal izatea eta erabiltzea da. Eta horixe da ekimen honekin bultzatu nahi dena.

Enpresetan, saltokietan, elkarte eta taldeetan, eta era guztietako entitateetan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen du Bai Euskarari Ziurtagiriak. Horren bitartez, entitate baten hizkuntza-egoera zein den ziurtatzen du. Ziurtagiriak, nolabait esateko, entitate horien guztien ahalegina eta konpromisoa aitortzen du, eta konpromiso hori jende aurrean erakusteko bereizgarria ematen die. Bide batez, esan dezagun Euskal Herrian 1.500

inguru direla Ziurtagiria duten entitateak.

Gure eskualdeari dagokionez, 2004. urtean abiatu zen Bai Euskarari Akordioa eta Ziurtagiria, Leitza, Goizuetan, Areson eta Aranon, bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen. 8 urteko ibilbidea egin du, beraz, Ziurtagiriak gurean. Urte horietan zehar, euskararen erabilera indartzeko eta normalizatzeko hainbat erabaki hartu dituzte entitate ziurtagiridunek, eta hainbat espaziotan euskarak tokia irabaztea lortu da horren bitartez.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak bultzatutako eta koordinatutako ekimena da ziurtagiriarena. Gure eskualdean Euskara Mankomunitatearen diru-

laguntza jasotzen du, eta bertako euskara zerbitzuarekin lankidetzan gauzatzen da. Gure inguruan, ekimen honetan sartuta dauden eskualdeak hauek dira: Sakana, Bortzirriak, Baztan eta Malerreka.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak ematen du Bai Euskarari Ziurtagiria, eta hiru maila ditu:

- **Bai euskarari ziurtagiria Bidean.** Normalizazioan lehen urratsak egiten ari eta konpromiso eraginkorrak hartu dituztenentzat.
- **Bai euskarari ziurtagiria Guk zerbitzua euskaraz.** Konpromisoak hartu eta dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen dutenentzat.
- **Bai euskarari ziurtagiria Guk zerbitzua eta lana euskaraz.** Dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen eta euskaraz lan egiten dutenentzat



Maila bat edo beste emateko garaian, zenbait alderditan edo ataletan oinarritzen da Elkartea: langileen hizkuntza gaitasuna; irudi korporatiboa eta paisaia linguistikoa; kanpo harremanak; barne harremanak; programa informatiboak.

ZIURTAGIRIA LEITZAN

Eskualdean dinamika hau abiatu zene-tik egindako 8 urteetan, konpromiso asko hartu da eta urrats txiki edo handi asko eman da. Horixe zen helburua, eta hori da bilatzen dena. Euskararen alde gaudela esatea ere garrantzitsua da, baina hori bezainbat edo gehiago interesatzen zaigu euskararen aldeko gauza eta urrats praktikoak egitea.

Zein dira gauza horiek? Bada, dene-tarik dago: oso gauza edo urrats errazak daude, Telefonitari fakturak euskaraz bidaltzeko eskatzea esaterako. Badaude landuxeagoak, hizkuntza paisaia euska-raz jartzea adibidez, edota langile eus-kaldunak kontratatzea... Mila aukera daude. Kontua da norberak ikustea zein urrats eman dezakeen, zein den hartu

dezakeen eta hartu nahi duen konpro-misoa, eta horretan aurrera egitea.

Gaur egun eskualdean 44 eragilek dute ziurtagiria. Horietatik 28 Leitzakoak dira. Gehiago ere izan dira, baina urteen joan-etorrian zenbaitek utzi egin du, normalean arrazoi ekonomikoen-gatik (ziurtagiria ordaindu egiten da), edo erakundea bera desagertu delako edo itxi delako...

Kopuruak 2012. urtean:

- Ziurtagiri kopurua: Areson 5, Goizue-tan 11 eta Leitzan 28 ziurtagiri.
- 18 ziurtagiri *Bidean*, 18 *Zerbitzua euskaraz* eta 8 *Lana eta zerbitzua euskaraz*.

Leitzan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragile edo entitateen zerrenda:

Bidean

Gaztañaga Taberna
Zortziko Labetxea
Perurena Harategia
Gaztelu Iturgintza
Etxe-Tresnak

Musunzar Ostatua
Oihana Erbiti Botika
Biok Jantziak
Dia Supermerkatua. Xumutxo
Urkiola Harategia
Amaia Arrandegia
Jose Larrañaga S.A.
Aliprox
Leitzako Jubilatuen Elkartea
Guratz Mendi Elkartea
Leitza Garajea

Guk zerbitzua euskaraz

Peritza Taberna
Torrea Taberna
Lizarraga Harategia
Zurlan Zurgindegia
Gorritz Axuri eta Gaztak
Aurrera Elkartea
Karrape Irratia
Erleta Ikastetxe Publikoa

Guk zerbitzua eta lana euskaraz

Haur Eskola
Kultur Taldea
Mendibil Mendi Taldea
Denok Bat Guraso Elkartea



BERDINTASUN ZERBITZUAREN SORRERA ETA EGITASMOAK

Badira hilabete batzuk Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizar-te Zerbitzuan Berdintasun arloa sortu zenetik, eta bertako berdintasun teknikari izateko kontratatu nindutenetik. Amaia Zalba dut izena eta Leitzako bulegoan astean hirutan egoten naiz, astearteetan, asteazkenetan (hamabostean behin) eta ostiraletan.

BERDINTASUN ZERBITZUAREN LEHENDABIZIKO URRATSAK

Hona gerturatu eta lau herrietan jaso nuen harrera oso atsegina izan zen, eta gai honekiko dagoen inplikazioa ere berehala sumatu nuen. Hori izan zen nire lehenengo lanetako bat hain zuzen, bertako erakunde eta eragileekin elkar-tzea, haiek ezagutzen joateko, eta elkar-

lana sustatzen hasteko. Mankomunitateko zinegotziek lagunduta, eragile askorekin bildu naiz, eta horiek ere gaia lantzen hasteko hainbat bilera izan dituzte eskualdeko eragileekin.

Ate asko jo ditugu zerbitzuaren berri emateko eta bertan egingen diren egitasmoak ezagutzera emateko, eta bide batez, elkarlana sustatzen hasteko;



Amaia Zalba, berdintasun teknikaria.

hezkuntza arloan diharduten zonaldeko eskolak, Leitzako Haur Eskola eta Institutua, Mankomunitateko lau herrietako zinegotziak, Gizarte zerbitzueta-ko langileak, euskara teknikaria, Kultur Taldea, Bilgune Feminista, eskualdeko guraso elkarteak, gazteak, LAB sindikatua, kirol elkartea, jubilatuen elkartea, garapen agentea edota herrietako elkarteak, Sarrio lantegiko ordezkariak...

Horiek izan dira ondoren ikusiko ditugun ekintzetan eta lan taldeetan parte hartu dutenak modu batez edo bestez.

BERDINTASUN PLANA

Zerbitzua sortuta, lehenengo egitasmoa Gizarte Zerbitzuko **Berdintasun Plana** egitea izan da. Edozein erakundetako Berdintasun Zerbitzu batek Berdintasun Plan bat eduki behar du, planteatzen diren politikak eta ekintza guztiak bertatik abiatzeko, marko gisa edukitzeko alegia. Beraz, gure asmo eta

egitasmoen artean haxe da lehentasuna, aurrerantzean eskualdean hori aplikatzeko.

Kontua da Berdintasun Plan bat egiteko aurretik bertako egoera zein den ezagutu behar dela, eskualdeko emakume eta gizonen beharrak ezagutzeko, dauden gabeziak, oztopoak, aukerak zein zerbitzuak ezagutzeko, eta horretarako bertako jendearen oportazioak beharrezkoak dira, horiek baitira errealitatea ezagutzen dutenak. Hausnarketa eta ekarpenak jasotzeko guneak sortzea izan zen hastapenetako eginkizunetako bat, eta honela eskualdean hiru lan-talde osatu ziren.

Lantalde horiek zenbait bilera egin dituzte, esan bezala emakumeen eta gizonezkoen egoeraz hausnarketa egiteko, eta genero berdintasunarekin edota desberdintasunekin zerikusia dutenak aztertzeko. Sortutako gune horiek gogoetarako proposak izateaz gain, informazioa partekatzeak ere izan dira. Ondoren, arloz arlo gabezia

nagusiak, eta aurre egiteko proposamenak zehaztuko dira.

Horrenbestez, Leitzan talde bat osatu genuen, bertako erakunde eta eragileek osatutakoa, Areson beste bat, eta Goizueta eta Aranoko erakunde eta eragileekin beste bat.

Talde hauetan, esan bezala, berdintasunari erreparatuz momentuko egoera aztertzen ari gara, beharrezkoak diren gauzak antzemateko, eta gero Berdintasun Planean zehazteko. Talde hauetan ateratakoa izango da gero Planean zehaztuko duguna, eta honela herritarren beharrei egokitu da egongo da.

BERDINTASUN PLANA: HELBURUAK, LAN-ILDOAK, EKINTZAK...

Planaren asmo orokorra genero berdintasunaren ikuspuntutik lan egitea izango da, eta bide batez genero desberdintasunak deusezte eta emakume eta gizonen arteko harremanak eraldatzea. Illoak, helburuak, eta ekintzak zehaztu gabe daude oraindik, baina aipatu-



Goizueta eta Aranoko lantaldea.

tako taldeetan ateratako informazioaren araberrakoa izango dira, errealtaterat ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Lantzeko beharrezkoak diren ildoen artean zeharlerrotasuna izango dugu, hau da, erakundeetan genero berdintasuna arlo guztietatik lantzen ahalegin-duko den estrategia eta administrazioan aldaketak eragingo dituen. Horretaz gain badira bileretan ateratako hainbat gai ere, parte-hartzaileen ustez garrantzitsuenak, hala nola hezkidetzak, emakumeen kontrako indarkeria, parte-hartzea, bateragarritasuna...

Herri bakoitzean errealtate eta berezitasun propioak dauden arren, askotan antzekotasun ugari daude; orokorrean, nolanahi ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia ez da modu zabalean landu, mugimendu feministatik eta herri mugimendutik egin dena kenduta.

Behin Plana burututa eta Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatean onartuta, martxan jartzea izango da helburua, eta horretarako eskualdeko erakundeek beren gain hartu beharko dituzte konpromisoak, plana betetzeko, sustatzeko eta parekidetasunean eta berdintasunean oinarritutako harremanetan bizitzeko baliabideak sustatzeko, inongo desberdintasun edo diskriminaziorik gabe.

FORMAKUNTZA

Beste egitasmo garrantzitsuen artean, eta Nafarroako Gobernuari eskatutako

diru laguntza baten bitartez egindakoa izan dena, eskualdeko erakunde eta eragileei zuzendutako **formakuntza** saio batzuk egitea izan da. Bertan eskualdeko politikari, teknikari eta eragileei berdintasunaren inguruko formakuntza minimo bat eskaintzea da helburua, sentsibilizazioa sustatzeko eta bakoitza poliki-poliki gaiarekin harremanetan jartzeko. Saio horietan feminismoaz edota patriarkatuaz aritu gara, baina baita emakumeen parte hartze sozio-politikoaz ere. Urte bukaera arte arituko gara formakuntza saio horiekin, bertan genero politikak garatzeko edota lantzeko moduak eta aukerak ikusiz, baita irudi eta hizkuntza erabilera ez sexista landuz ere.

Parte hartzea ezin hobia izan da saio hauetan, bertara lau herrietako pertsonak gerturatu baitira, eta hau oso positibotzat jotzen dut, eztabaidarako eta erreflexiorako gune bihurtu baitira. Esan bezala Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko zinegotzi, teknikari eta eragileei zuzendutakoak dira, arlo ezberdinetakoak eta herri ezberdinetakoak, eta hau ere oso garrantzitsua da arlo ezberdinak lantzen dituzten ordezkariak biltzean lehen aipatutako zeharlerrotasuna lantzen ahaleginduko delako.

HEZKIDETZA

Nahiz eta Berdintasun Plana bukatu gabe egon, bada orain arte landu den eta lantzen jarraitzen dugun arloa: hez-

kuntza. **Hezkidetzak** lantzeko eta hezkuntza komunitatean genero berdintasuna lantzeko aurreko urteetan hainbat ekintza egin dira Gizarte Zerbitzuko langileekin eta Leitzako Bilgune Feministarekin.

Horren harira, eta gaia jorratzen jarraitzeko, aurreko Berdintasun Zerbitzua eta eskualdeko eskolak zein Leitzako haur eskola eta institutua harremanetan egon gara. Aurrerantzean gai hau Planean zehaztutakoaren arabera jorratuko dugun arren, momentuz, eta aurretik aipatutako diru laguntzarekin, irakasleei zuzendutako formakuntza espezifikoak antolatuko dugu. Horiek dira hezkidetzak hezkuntzan lantzeko ardura dutenak, eta, hortaz, beharrezkoa da sentsibilizazioa eta formakuntza ematea.

Hezkuntza komunitateak gaia jorratzeko aukera bikainak eskaintzen ditu, bertan genero ezberdintasunak zuzenean islatzen direlako, bestelako guneetan bezala, baina bertan horiek saihesteko beharrezkoak diren baliabideak modu zuzenean landu daitezke. Aldi berean, eskualdeko etorkizuneko herritarren hezkuntzaren arduraren elementu garrantzitsua da eta, beraz, Berdintasun Zerbitzutik gaia lantzeko baliabideak eskaintzea izango da helburua.

SENTSIBILIZAZIOA

Azkenik, eskualdeko herritarren artean genero berdintasunaren inguruko **sentsibilizazioa** bultzatzea izango da beste asmoetako bat, hortik sortzen baita ekintzarako gogoak. Emakumezkoek urteetan zehar jasandako diskriminazioei erreparatu behar diegu aurrea, gaur eguneko egoera aztertzeko eta dirautenak ezagutzeko. Genero berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzeko, beharrezkoa da gaiarekiko sentsibilizazioa, dauden diskriminazioak ezagutzeko eta ondoren horiek saihesteko beharrezkoak diren ekintzak burutzeko.

TRINKOTZAINDIA

NIK DAFLIPAT, ZUK DAFLIPAZU?

Aditz trinkoak zer diren ba al dakizue? Zue-
tako askok ez duzue akaso horren berririk
sekula izan, baina beste askok eskolan edo
ikastolan zer edo zer ikasiko zenuten, edo euskal-
tegian bestela...

Aditz trinkoa zer den azaltzeko adibide batzuk
emanen ditugu, horixe baita modurik errazena
ikusteko:

*Dator, dakusat, zekien, nekarren, darabilt,
nekarzkien...*

Erraz askoak batzuk, konplikatuexagoak
besteak. Horien ondoan, badakizue, aditz peri-
frastikoak ditugu: *etortzen naiz, ikusten dut,
jakin duzu, ekarri nion, erabiltzen dugu...*

Ez gara hasiko trinkoen eta perifrastikoen
arteko aldeak azaltzen, luze joko bailuke horrek.
Gutxi asko, gainera, badakigu zer den bakoitza.
Ezberdintasun bat, nabarmena oso, trinkoak
hitz bakarrean ematen ditugula, eta besteak
gutxienez bi hitzetan.

Kontua da batzuen ustez aditz trinkoak gehie-
gitxo baztertu ditugula gaurko euskaldunok,
agian zailxeagoak egiten zaizkigulako, eta bi
osagai dituen horretara jotzen dugula oso erraz.
Garai batean, nonbait, gehiago erabiltzen zituz-
ten aditz trinkoak, baina dena aditz bakarrean
biltzeko joera hori baztertu samarra daukagu
gure eguneroko hizkeran.

Eta hori ikusita, azken aldian aditz trinkoaren
aldeko nolabaiteko korrantea abiatu da, *twitterren*
bidez batez ere, eta, oraingoz behintzat, umore
kutsu nabarmen samar batekin. *Trinkotzaindia*
izeneko erakundea edo dena delakoa eratu da
sare sozial horretan, eta jendea aditz trinko
berriak, forma berriak proposatzen hasi da. Ez
dakigu joko eta entretenigarri kutsua duen hori
aurrerago asmo eta proposamen sakonago eta
serioago bihurtuko den, baina momentuz hor
barna hainbat ideia sortzen ari da, eta ikusi ditu-
gun proposamen horietako batzuk ekarri ditugu
hona, nolatsukoak diren ikus dezazuen. Honakoak
dira, hitzez hitz *twitter*-etik hartuak:

NOLA ESAN, ADITZ TRINKO BATEN BIDEZ....

Atsegin dut > datsegit

Que se joda > bizorratze

Se lleva la palma > Dapalmarama

Oxala ulertuko balu > ailuler

Ez dezagun esajeratu > ez desajeragun

Ez dezagun galdu > ez degalgun

Erosten dut > Derost



No me hallo > ez naurki

¿Por qué no te callas? (zuka) > zergatik ez
zaxiltza?

¿Por qué no te callas? (hika) > zergatik ez
haxil?

¿Por qué no te corres? (zuka) > zergatik ez
haziltza?

¿Por qué no te corres? (hika) > zergatik ez
hazil?

¿Echamos un polvo? > dautsagu?

Me lio un cigarro > zigarro bat dakiribilt



Dokumentua(k)erantsi diz(ki)ut > dokumentua(k)
derantsi(zki)zut edo datxiki(zki)zut

Aitortzen dut > Daitort

Dena lapurtzen ari naiz > Durdangarit

El que no lloa no mama > ez danegarrenak ez
dadoski

Me resbala > Datxirristit. Zetxirristadan
(lehenaldian)

Flipatu egiten dut > daflipat

Aditz hauek lagin modura ekarri dizkizuegu,
egin daitekeena erakusteko. Erdarazko zenbait
formatatik abiatu dira aditz trinkoak sortzen ari
diren batzuk, baina ariketa euskaratik euskara-
ra egin daiteke, noski, eta hala ari dira beste
batzuk ere. Jakina, kontu honek ez du mugarik,
irudimena ez baldin bada, eta nahi adina aditz
-forma sor litezke. Lasai, ez baikara euskara
aldatzea proposatzen ari eta hori baino apalagoa
da gure proposamena: erabili hizkuntza, erabi-
li euskara, gozatzeko, sortzeko eta dibertitzeko,
horretarako ere bai baita.

Kolaborazioa

Egin izan dugu inoiz zuk ere, irakurle, MARMARIn zer edo zer idazteko deia. Eta baita tarteka erantzuna jaso ere. 24. zenbaki honeterako berriz ekarri dugu irakurle baten kolaborazioa. Laguntzaile horren hitzak dira honakoak: “Ehun urtez goitik ahoz-aho datorren ipuina, orain aiton-amonak garenok haurtzaroan entzun-dakoa. Hiru bertso ageri dira nabarmen, naiz gaurko peda-

gogiaren modukoak ez izatea balitekeen. Barregura sortzen dute. Horretaz gain, nahiz denek dakiguna izan, hemen isladatzea pentsatu dut kontu-kontatze hori ez zela beti besta izaten: nahiz batzuetan gozatu, beste batzuetan sufritu egin behar”

Sarreratxo hori eginda, hemen duzue ipuina, jaso dugun bezalaxe emana:

ASTOA ETA OTSOA

Astoa lasai-lasai larrean zebilela, otsoak eraso eta lepotik harrapatu zuen asto gaixoa. Honek hil aurreko grazia eskatu zion, urkamendiko azken desio gisara.

— Zer duk bada hire azken desio inportante hori? galdetu zion otsoak.

— Anima zeruratu nahi nitek, eta utzi zaiek azken meza entzuten, ondo-ko ermita horretan.

— Hire ariman kontua! Beno-beno, egin ezak otoi, ia zuritzen den behingoz hire anima delako hori. Ia zerbait bitxia ikusten dugun, saio berean.

Astoak, ermitan sartzearekin batera, atea itxi zuen, atearekin otsoari sudurrean danba emanez. Horrela gauzak, otsoak ermitaz kanpotik deiadarka oihu egin zion ermita barrenean zegoen astoari:

*Asto zahar ta mukizu,
tranpa askorik badakizu.
Nik hurrena harrapatzean
mezarik entzungo ez duzu.*

(Kantuz errepikatu: “AI, OI MUKIZU, MEZARIK ENTZUNGO EZ DUZU”).

Eta astoak ermita barrenetik:


*Otso zaharran grazia,
anker gaizki hezia,
bihar jango banak ere
badiat gaurko bizia.*

(Kantuz errepikatu: “AI, OI GRAZIA, BADIAT GAURKO BIZIA”).

Gero gerokoak.

BUKATZEN EZ ZEN IPUINA ?

“Gero gerokoak” esan zuenean, nire aitak usteko zuen bukatu zela ipuina, baino ezta pentsatu ere! Guretzat hasi besterik ez zen egin; bada, siesta bikaina egin genuen egun horretan eta galdera andana galanta egiteko prest geunden. Hura zen gure sasoia!



— Aizu, baino astoak gosez hiltzerik nahi ez bazuen, belarra jatera eta ura edatera atera beharko zuen ermitatik.

— Bai noski, beharko atera, baino otsoak alde egiten zuenean antxume edo mokadu goxoren baten bila.

Serenata asuntoan artista bitxiak ziren bien hala biak ere: Astoa egunaz arrantzaka eta otsoa gaueko ulu edo oihu zorrotzetan, nor bere buruen dibertigarri eta ondokoaren izorregarri. Otsoaren kapritxoa otordu on baten ondoreko siesta zen, luza-luza eguzkitan etzanda. Baino han ez zegon janaririk, eta ahuleri bizian begiak itxi orduko, astoak arrantza izugarriekin inguru guztia dardarka jartzen zuen, otsoa salto batez esnaraziz.

Horrela zebilela, otsoari hau bururatu omen zitzaion (naiz poeta traketsa izan, bertso modua gustatzen zitzaion):

*Luzatuko da baraua,
asto madarikatua!,
horren zain geldituz gero
otsoa dago galdua.*

(Kantuz errepikatu: “AI, OI BARUA, OTSOA DAGO GALDUA”).

Horrela alditxo bat pasa zuen astoak ermita barrenetik otsoaren gauetako uluak entzunez, baino azkenean gau oso-otsoa isiltasunean iraun zuen, astoak espero bezala.

Badaezpada, bazterrak ongi begiratu noski, atera zen ermitatik astoa bere bizia egitera, jan eta edanez.

— Bai, baino otsoa nora joan zen?

— Esan dizuet bada, antxumeetara edo zerbait mokadu goxoen bila.

— Eta zer pasatu zen antxumee-kin?

— Hori beste ipuin bat da eta bihar kontatuko dizuet.

— Nola bihar? Antxume gaixoak otsoaren mende utzita ezin genezake lorik egin, edo loa hartu ezker otso-ametsetan hilko gera.

Kontua luzatzen ari zelarik, sumatzen genuen okerra zetorrela poliki-poliki. Gu, esan bezala, sasoi betean siesta galanta eginda, baina aita egun guztian lanean aritua zen, eta non guk loa hartuko genuen kontuak entzunez, aita bera aldizka lo harturik, burua zintzilik zuela gelditzen hasi zen, nonbait leher nekatua lanean. Hura bazan! Kontu-kontalari berak lo hartu gure partez. Guk esnarazten genuen lo-kuluxkatik eta bera (nahi eta ezin), saiatzen zen ipuinari segida ematen. Baina berriz ere, erdi lotan eta erdi ametsetan hasten zenean, guk oihu:

— Aita, erokeriak esaten ari zara!!!

— Eh... non... zer...? A bai, jakinik horrela nekatua nengoela eta semeak berriz nahiko atxonak, nola demontre ekin diot BUKATZEN EZ DEN KONTUARI?

Zutik jarri eta haserre samar esan zigun:

— Bukatu die kontuk, eta gainera betirako egoera honetan. Ez da sekulan izango ipuinik ni leherturik nagoenean eta zuek aza baino freskoago, mingai-netik tiraka zabiltzatenean. Bukatu dira.

— Ez horrela jarri mesedez! Bihar, “eguna argitzen duenean, egongo gera elkarrekin” (esan genion ustez jakintsu itxurak hartuta).

Biziko bazen, ihes egin zigun bere ohera.

Biharamuna ezik, egun batzuk pasa behar izan ziren ANTXUME ETA OTSOAREN ipuina aitari kontarazi bitarte.

Apustu egingo nuke horrelakoak zuen familietan ere gertatu izango direla.

Joxe



zer diozu?

eta zuk,

Ibon Azpiroz



- Irakurri duzun azkeneko liburua, aldizkaria... Joxe Azurmendiren “Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa”.
- Erosi duzun azkeneko musika cd-a. Lisabören “animalia lotsatuen putzua”.
- Musika mota edo estilo bat, gehien maite duzuna: Bakarlari bat esanen dot, Mikel Laboa.
- Musika mota edo estilo bat, gutxien maite duzuna: Rantxerak urduri jartzen nabea.
- Zure zaletasunetatik bat bakarra aukeratu behar izanez gero, zein aukeratuko zenuke? Margotzea.
- Esan bene-benetan ikaragarri moles-tatzen dizun gauza bat. Lyon-Cor-basetik atera eta Jone han uztearen sentsazioa.
- Eta zerk gozarazten dizu ikaragarri? Noizen behin Leitzelarrera igo eta non bizi naizen gogoratzea
- Zer da praktikoagoa: neurriko pesi-mismoa, edo neurriko optimismoa? Neurriko optimismoa, beti!
- Herrira etorrira, gurera. Leitzza herri irekia eta aurrerazalea da? Edo itxia eta atzerakoia? Edo ez bata eta ez bestea? Aurrerazalegoa izan zitte-keen...
- Herriko taberna giroa moteldu dela ematen du, garai batekoarekin alde-ratuta. Zikloak dira, edo oraingoa benetako aldaketa da, akaso betira-ko? Zikloak diela pentsatu nahi dot!
- Zerk emanen lioke martxa handi-xeagoa Leitzari? Gehixeagotan Lei-tzen gelditzeko ohiture hartzea.
- Zer jakin beharko genuke denok, nahitaez, gure herriaz? mmm... ezta kit!
- Kuriositatez, guk hau galdetu baino lehen, ba al zenekien Patxi Arrazo-la nor zen? Bai, Iruñeko bere biloba batek esan zien behin!

Irati Barandiaran



- Irakurri duzun azkene-ko liburua, aldizkaria... Asa Larsson-en “La Senda Oscura”, miste-riozko eleberriak oso gustuko ditut.
- Erosi duzun azkeneko musika cd-a? Denbora da ez dudala cd-rik erosi... Azkena duela hiru bat urte izanen zen, oparitarako, Anari-rena.
- Musika mota edo estilo bat, gehien maite duzuna. Ezingo nuke musika estilo bat aukeratu, momentu bakoitzak bere musika du, parrandarako zerbait ani-matua, dantzagarria; etxean egoteko eta erlaxatzeko, aldiz, musika lasaia...
- Musika mota edo estilo bat, gutxien maite duzuna: Lehen esan dudana bezala musika estilo desberdinak gustatzen, musika mota guztiek dute zerbait, baina bustitzekotan Heavy Metal-a nahiko nekagarria egiten zait.
- Zure zaletasunetatik bat bakarra aukeratu behar izanez gero, zein aukeratuko zenuke? Bat bakarra? Nahiko pertsona aktibotzat dut nire burua, zaletasun ugarikoa, baina bat aukeratzekotan ezin izanen nuke bizitza sozialik gabe egon, jendearekin egotea asko gustatzen zait, lagunak, kuadrila, familia...
- Esan bene-benetan ikaragarri molestatzen dizun gauza bat. Itxoinaraztea, oso urduri jartzen naiz.
- Eta zerk gozarazten dizu ikaragarri? Gogor lan egin eta gero gauzak ongi ateratzen direla ikusteak, atzera begiratu eta egindako esfortzuak pena merezi izan duela jakiteak. Izugarrizko satisfazioa ematen dizu eta aurrera jarraitzeko indarra.
- Zer da praktikoagoa: neurriko pesimismoa, edo neu-rriko optimismoa? Neurriko optimismoa, zalantzarik gabe! Errealista izan beharra dago, baina optimismoa-rekin mundua hobe ikusten da eta momentu txarre-ne-tan ere alde onak ikusteak asko laguntzen du.
- Herrira etorrira, gurera. Leitzza herri irekia eta aurrerazalea da? Edo itxia eta atzerakoia? Edo ez bata eta ez bestea? Nire ustez irekia eta aurrerazalea da Leitzza, baina batzuetan bultzadatxo bat behar iza-ten dugu.
- Herriko taberna giroa moteldu dela ematen du, garai batekoarekin alderatuta. Zikloak dira, edo oraingoa benetako aldaketa da, akaso betirako? Espero dut ziklo bat izatea! Penagarria izanen litzateke herri giro hori galtzea. Herriari bizitasuna ematen dio, jendarte-ko erlazioak egiteko aukera paregabea da.
- Zerk emanen lioke martxa handixeagoa Leitzari? Ez dakit, ez da erreza. Baina hasteko honen inguruan interesa dutenak elkartu beharko lirateke, egoera zein den aztertu eta elkarlanean aritu. Esateko, Gipuzkoa aldean “Pintxo Pote” delakoak oso ongi funtzionatu du.
- Zer jakin beharko genuke denok, nahitaez, gure herriaz? Leitzako ihoteak noiz diren, badago zalantzak dituenik.
- Kuriositatez, guk hau galdetu baino lehen, ba al zenekien Patxi Arrazola nor zen? Ba Sarriorekin erlazionatu izan nuen, baino ez nintzen ausartuko gehiago zehazten.